

ESKOLAREN HISTORIA ETA IZEN ALDAKETA

Badira urte batzuk gure herrian eskola dagoela. Eskolak San Martin izena eduki du betidanik baina, 2021eko urriaren 21ean izena aldatu genion. Baina ez gara bukaeratik hasiko... Hemen, eskolaren ibilbidea zein izan den kontatzen dizuegu, animatu irakurtzera!

1971-ko otsailaren 1-ean, Aramaioko ikastola martxan jarri zen.

Gazte aramaioarrek mugimendu indartsu bat sortu zuten hainbat kultur talde eta jarduera antolatuz. Hauen helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea izan zen.

Garai haietan, euskara etxean eta kalean soilik erabili ahal zen. Horregatik, euskara mantentzeko ondorengoei erakutsi behar zitzaien, beraiek ere erabili ahal izateko. Horretarako, ikastolan hasi ziren euskaraz klaseak ematen elizaren baimenarekin (babesarekin). Noski, hiru urtetik sei urtetara gertatzen zen hori, ez zelako beharrezkoa ikastolara etortzea adin horretan.

Ikastolak dirua lortzeko hainbat ekintza antolatu ziren, adibidez: errifak saltzea, musika kontzertuak antolatzea, bazkideak bilatu eta beraiek hileko kuota ordaintzea ...

Don Jose Markiegiren, herriko parrokoa, laguntza ezinbestekoa izan zen eskolarentzat. Izan ere, beragatik izan ez balitz, ez zen ikastolarik izango garai hartan, bera zen bileretara joaten hasi zena eskolari laguntzeko, bere baimena eman eta sinadura jarri zuen ere hainbat dokumentutan, eskola, katekesi talde gisa, elizaren babespean egoteko; Euskara administrazioko erakunde guztietan debekatuta baitzegoen.

Behin elizaren babesa edukita, entitate batzuetatik diru-laguntza jaso, herritarren bazkidetza lortu eta udaletxeko baieztapena eskuratu zen. Baina, gauza bat falta zen, andereñoa aukeratzea. Batzarrak bertako

partaide bat aukeratu zuen lan hau egiteko, Ana Arriolabengoa, eta bera izan zen ikastolako lehen irakaslea.

Ana Arriolabengoa 1971ko otsailean hasi zen lanean. Orduan, 2, 3 eta 4 urteko hamabost ikasle zeuden.

Urte horretan, Jesus Zabala udaletxean sartu zen. Bera zen garai hartako udaletxeko euskaltzale bakarra eta, Aldundira joan zen ikastolarentzat laguntza eske baina, ez zuen ganorazko erantzunik jaso.

Hurrengo urteetan, euskaltzale gehiago sartu ziren udaletxean eta Aldundira joaten jarraitu zuten honek ikastola bere gain hartu zezan.

Inseguridade egoera honetan, familia batzuk beraien seme-alabak beste eskola batzuetara eramaten hasi ziren eta ikastola ia ikaslerik gabe geratu zen.

1973. urtean Manuel Lejarreta Diputaziora sartu eta Diputazioak Aramaioko ikastolaren jabetza hartzea lortu zuen.

Aldundiak Aramaioko eskola beregain hartzen duenean, bertako San Martin eskola nazionalako eskolaren parte bat bezala funtzionatzen hasten da ikastola.

Euskaraz astean ordu erdi bakarrik hitz egin al zuten baina, ez zuten horrela egiten, dena azpijokoz egiten zuten. Hiru andereño etorri ziren "enseñanza doméstica" emateko, hala zioen behintzat kontratuak. Beraiek ez zeukaten berez ikasleei notak jartzerik. Guzti hori eskola nazionalaren lana zen.

Sasoi horretan Visitación izeneko ikuskaria etortzen hasi zen ikastolara. Aldundiak zuen inspektorea zen eta eskoletatik pasatzen zen eta bertan egiten zen guztiaren berri jasotzen zuen. Bestetik, edonoiz eta ezustean eskola nazionalako inspektoreak agertzen ziren eta irakasleek jakin behar zuten ze klase tokatzen zen momentu horretan. Euskarazkoa izanez gero,

euskaraz hitz egin ahal zuten, baina ez bazen, ezin zuten euskaraz hitz egin. Euskaraz hitz egiten harrapatuz gero espediente akademikoa jasotzeko arriskua zuten.

Andereño berri hauek euskal ohitura zaharrak ekarri zituzten beraiekin batera: Santa Ageda eta Olentzero adibidez. Bilerak egin ahal izateko baimena eskatu behar izaten zuten eta "orden del día" delakoa kuartelera eramán gainera.

Bi eskoletako irakasleen artean, euskaldun eta erdaldunen artean, ez zen arazorik egoten. Jangelan, bai eskola nazionalakoak eta bai euskaraz ikasten ari zirenak ere, elkarrekin jaten zuten.

Urte hauetan zehar ere guraso askok, haur-eskola hemen egin eta gero Almenara edo beste ikastetxe batzuetara bidaltzen jarraitzen zituzten ikasleak.

BATASUNA 1978.ean

Ikasle gehienak euskarazko eskolara joaten hasi ziren eta erdarazko matrikulazioa jaisten hasi zen. 1976an eskola Nazionalera Eugenio Arrate heldu zen, irakaslea izateko. 1977-78 zuzendaritzara joan zen, herriari zer gertatzen zitzaion konturatu zen eta batasunaren ideia izan zuen. Ez zuen nahi bi eskola egotea, ezin zirelako ekonomikoki mantendu eta ez zuelako nahi Aramaion bi gizarte desberdin egoterik. Udaletxeko zinegotziarekin, Jesus Zabalarekin hitz egin zuen. Administrazioako ordezkariarekin, bi guraso elkarteekin eta irakasleekin hitz egin zuen. Bi guraso elkarteekin egindako batzar batean, batasunari baietza eman zioten. Hizkuntza inspektoreak, eskolako guraso guztiak ados egon behar zirela jarri zuen baldintza moduan. Guraso denekin batzarra egin zuten, han zeuden denak baietza eman zuten eta Eugenio Arrate eta Jesus Zabala, etorri ez ziren gurasoengana joan, eta batasunarekin ados zeuden galdetu zieten. Ahoz egindako batasuna izan zen. 1978ko irailean, batasuna jada baieztatuta zegoenean, Eugenio irakasle gabe geratu zen. Administrazioak hiru irakasle bidali zituen.

Batasunaren hasierako urteak ez ziren errazak izan. Ikasle batzuk euskaraz oso ongi zekiten eta beste batzuk erdaraz. Gainera euskarazko material gutxi zegoen. Gaur egun euskarazko material gehiago dago eta denok dakigu euskaraz nahiz erdaraz...

Gaur egun, eskola egonkortuta dago eta erronka desberdinei erantzun behar die. **2021ean** adibidez, Elkarbizitza Batzordeak eskolaren **izena aldatzea proposatu zuen**, bi arrazoi nagusi hauengatik:

1-Izenarekin gaizki ulertuak izan dira, izen berdinarekin eskola gehiago daudelako.

2-San Martin izena santu batetik dator eta hori pertsona batzuei ez zaie gustatzen.

Hau ikusita, eskolako ordezkariak galdeketa egitea proposatu zuten, eskolako izena aldatzea edo ez aldatzea erabakitzeko.

Ze pertsonak izan zuten bozkatzeko aukera?

- Eskolako langileak
- Ikasleak
- Gurasoak
- Udal ordezkariak

Botaketa egin ondoren, **eskolako izena aldatzea erabaki zen**.

199 boto jaso ziren eta horietatik 124 baiezkoak izan ziren.

Eskolak izena aldatzea erabaki ondoren, izen desberdinak pentsatu behar genituen. Horretarako, irizpide hauek kontuan hartzea pentsatu genuen:

- Errespetuzkoa izatea.
- Euskaraz izatea.
- Beste eskola bateko izena ez izatea.
- Herriarekin lotura edukitzea.
- Egungo garaira egokitua egotea.

Proposamenak jaso ondoren, begirada bat bota genien, eta ea aproposak ziren ala ez adostu genuen. Ondoren, beste bozketa batean, bakoitzak bere izen gustukoena aukeratu behar izan zuen.

Bozketa horretan boto gehien jaso zuten izenen artean, beste bozketa bat egitea erabaki zen.

Azken botaketaren izen irabazlea **Aramaixo Herri eskola** izan zen 69 botorekin.